

ESKUALDE BILERETARAKO INFORMAZIOA /2016ko apirila

1.- Lehen Hezkuntzako 3. mailan egin beharreko ebaluazio diagnostikoa.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailetak probak LOMCEren aplikaziotik eratorriak dira, eta, Eusko Jaurlaritzak, HEZIBERRI dekretuetan zehaztutakoari jarraituz, Euskadin ere egingo ditu proba horiek. Edonola ere, proba horien hasierako ezaugarriak (kanpo ebaluazioak izatea, eta Gobernu Zentralak erabakitako edukietan oinarrituak) aldatuz joan dira LOMCE onartu zenetik. Nahiko nahasmen eta zalantza dago proba hauei dagokienez, baina saiatuko gara gaur egungo egoera zein den laburtzen, eskura dugun informazioan oinarriturik.

• **Lehen Hezkuntzako 3. mailako proba:**

LOMCEren aplikaziorako egutegiarekin bat etorruta, Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasle guztiak egin behar zuten nahitaz proba hori 2014-2015 ikasturteko aurrera. Euskadin, Eusko Jaurlaritzak proba hau egitea planteatu zuen, ikastetxetik kanpoko langileekin, 30 ikastetxe publiko nahiz pribatu-itunduetan, proba pilotu modura. Baina proba egitearen kontrako jarrera zela eta -familiena, bereziki-, aurreikusitako ikastetxeen erdietan baino gehiagotan ez zuten egin (ikastetxe publikoetan, batik bat). 2015-2016 ikasturte honetarako, Eusko Jaurlaritzak proba egiteko asmoa du, baina aldatu egin dira haren ezaugarriak. Hona hemen probaren bereizgarriak, labur azalduta:

- Etaparen erdian egiteko ebaluazio diagnostiko modura planteatzen da, ebaluazio sistema propioaren parte modura, HEZIBERRI 2020 Planeko hezkuntza eredu pedagogikoaren arabera.

- Ikasturtea amaitu aurretik egin behar da proba (apirilean edo maiatzean), eta borondatezkoa izango da ikastetxearentzat. Alegia, ikastetxea, berez, ez dago proba egitera behartuta; ikastetxeari berari dagokio proba egin edo ez erabakitzea.

- Barne proba bat da, ikastetxean bertan egingo da, eta ikastetxeko irakasleekin. Edukiari dagokionez, bi aukera planteatzen dira: ikastetxeko bertako irakasleek erabakitzea, alde batetik, edo ISEI-IVEIk (Hezkuntza Sailaren ebaluazio erakundea) landutako irizpideei jarraituz erabakitzea. Proba ikastetxeko irakasleek zuzenduko dute, eta izaera diagnostikoa duenez, haren emaitzak ez du eragin akademikorik izango eta ez da publiko egingo.

- Ikastetxeak proba egitea erabakitzen badu, 3. mailako ikasle guztiak egin beharko lukete. Familiaren batek nahi ez badu bere alabak edo semeak proba egiterik, ikastetxeak berak erabakiko du nahitaz egin beharrekoa den edo ez.

Proba honen ezaugarriak aldatu egin direnez izako ikasturtean planteatu zenarekin alderatuta, EHIGEk balorazio bat egin du horri buruz, eta erabaki du IGEei honako alderdi hauen berri ematea:

- Proba egitearen kontra gaude gaur egun ere, iruditzen zaigulako proba LOMCEren aplikazioak behartutako zerbait dela. Gure ustez, proba hau ez da beharrezkoa. Ikastetxeak ebaluazio jarraituak egiten ditu, eta Lehen Hezkuntzako etapa hiru ziklotan antolatuta dago orain ere. Egoera hori aldatzen ez den bitartean, Lehen Hezkuntzako 4. mailako proba diagnostikoa egiten jarraitu behar da, orain arte bezala, eta halaxe aurreikusita dago hurrengo ikasturterako.

- Proba hau egitea edo ez egitea ikastetxeak berak erabakiko duenez, komenigarria iruditzen zaigu IGEa zuzendaritzaren harremanetan jartzea, zer iritzi duten eta horri buruzko erabakirik hartu duten jakiteko. Ikastetxeko zuzendaritzak, bere kabuz nahiz irakasleen klaustroak hala erabakita, proba egiteko erabakia hartu badu, IGEari proposatzen diogu eskatu diezaiola zuzendaritzari OOG-Eskola Kontseiluaren osoko bilkura egitea, proba egiteko arrazoiak azal ditzaten eta bozketaren bidez erabaki dadin proba hori egin edo ez, hezkuntza komunitate guztiak parte hartuz erabaki horretan.

- Era berean, eta azkenean proba egitea erabakiz gero, IGEak zuzendaritzari eskatu beharko lioke proba hori noiz egingo den jakinaraztea 3. mailako ikasleen familiei.

• **Lehen Hezkuntzako 6. mailako proba**

LOMCEren aplikaziorako egutegiaren arabera, 2015-2016 ikasturtearen amaieran egingo da, lehen aldiz, Lehen Hezkuntzako 6. mailako proba; baina Eusko Jaurlaritzak erabaki du Euskadin ez dela egingo. Hala ere, HEZIBERRI 2020 Planean jasota dago ebaluazio diagnostiko bat egitea Lehen Hezkuntzako etaparen amaieran, hau da, 6. mailan. Hori dela eta, ikasturte honetan egingo ez den arren, datorren ikasturtean berriro sortuko da proba honi buruzko eztabaida.



LOMCEekin loturiko beste gai batzuei dagokienez, PSOEek aurkeztutako lege proposamen bat onartu zuen apirilaren 5ean Diputatuen Kongresuak (186 boto alde; 112, kontra; eta 42 abstentzio), zeinetan eskatzen baita, LOMCE indargabetzeko lehenengo neurri gisa, haren aplikaziorako egutegia etetea. Horrek esan nahi du bertan behera geldituko direla orain arte abian jarri ez diren neurri guztiak (bereiziki DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 2. mailako errebalidak). Aldiz, dagoeneko aplikatzen hasita dauden neurriak (Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailako probak, erlijioaren tratamendua, hezkuntza itunak luzatzea, Oinarrizko LH ezartzea, etab.) aplikatzen jarraituko dira; izan ere, Hezkuntza Lege berri bat onartu beharko litzateke horiek ezabatu ahal izateko.

Lege proposamen hori onartuta ere, ez du eragin errealik izango ekainean hauteskundeak egin behar izanez gero; izan ere, hauteskundeetarako deialdia egiten bada, Gorteak desegin beharko dira, eta ezinezkoa da legea hilabete bakarrean izapidetzea. Hortaz, litekeena da orain sei hilabeteko egoera berean egotea, hauteskunde batzuen emaitzaren zain, ikusteko ea posible izango ote den edo ez denborarekin LOMCE indargabetzea.

2.-Hainbat gairi buruzko informazioa

2.1: Hezkuntza laguntzako behar bereziak dituzten ikasleak eskolatzea

Ikasturte honetan, mahai gainean etengabe izan dugu gai hau:

- Baikararen batzarrean, azaroaren 7an, agiri bat onartu zen, gero EHIGeri igortzeko, hark onespina eman ziezaion.
- IGEek Gasteizen otsailaren 15ean emandako prentsaurrekoan, euskal eskola publikoaren aldeko agiri bat aurkeztu zen, eta ikasle etorkinak eskolatze desoreka salatu zen.
- Otsailaren 25ean, Lasarteko Sasoeta ikastetxeko Burunzpe IGEak Arartekoaren ebazpena jaso zuen, Lasarteko ikastetxeetan ikasle etorkinak modu orekatsua banatzeko premiari buruzko kexari buruzkoa. Ebazpen horretan, Arartekoak erantzun zuen Hezkuntza Sailarentzat helburu saihestezina izan behar duela ikasle etorkinak modu orekatsuan banatzen saiatzea Lasarteko haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako bi ikastetxe publikoetan. Hori dela eta, Arartekoak Hezkuntza Sailari eskatzen dio behar bezala erabiltzea 35/2008 Dekretuan araututako ekimen guztiak, eta, aldi berean, betetzea *Ikasle etorkinentzako hezkuntza arretarako programa, eskola-eredu inklusibo eta kulturartekoaren esparruan* programan zehaztutako helburuak.
- Otsailaren 29an Hezkuntza Sailburuak Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean egindako agerraldian onartu zuen bere Sailak ez zuela asmatu sareen arteko oreka lortzen eta iragarri zuen horri buruzko zenbait neurri hartuko zituztela: %10eko neurritz gaindiko ratioaren kontrola, epez kanpo matrikulatzen diren eta hezkuntza laguntzako behar bereziak dituzten ikasleak eskolatze gordetzeko; irizpide uniformeak ezartzea eskolatze batzordeetan, atzerriko jatorria duten ikasleak pilatu ez daitezen dagoeneko mota horretako ikasle ugari dituzten ikastetxeetan; ikasleak onartzeari buruzko 35/2008 dekretua aldatzeko aukera aztertzea, ikastetxera sartzeko baremoei dagokien atalean, etab.
- Matxoaren 10ean, Eusko Legebiltzarren osoko bilkurak ez-legezko proposamen bat onartu zuen, PSEren eta EH-Bilduren aldeko botoei esker, zeinetan eskatzen zaion Hezkuntza Sailari Euskal Eskola Publikorako plan estrategiko bat lantzea, eta plan horretan txertatzea honako neurri hauek, besteak beste: lurralde osorako matrikulazio bulego bakarra sortzeari buruzko azterlana egitea; familia errenta apalenak lehenesten dituen baremoa aldatzea; familia eta sindikatu etako ordezkariak eskolatze batzordeetan parte hartzen dutela bermatzea; irakasle eta zuzendaritza taldeen egonkortasuna sendotzea eta irakasleen behin-behinekotasun maila murriztea.
- EHIGEk martxoaren 16an emandako prentsaurrekoan, euskal eskola sistema inklusibo bat lortzeari begirako zenbait proposamen aurkeztu ziren. Dokumentu hori Baikararen batzarrean hartutako erabakietan oinarritzen da, batik bat, eta gure webgunean kontsulta eta deskarga daiteke, esteka honen bidez:

<http://www.baikara.eus/wp-content/uploads/2016/03/sistema-inclusivo.pdf>

Dokumentu horren azken atalean, eskari hau agertzen da: euskal alderdi politikoek EHIGEren proposamenak Eusko Legebiltzarreko hurrengo hauteskundeetarako beren egitarauan txertatzea. Horretarako, mahai inguru bat egingo da alderdi politikoekin, auzi honi buruz zer jarrera duten azal dezaten; Gasteizko Europa Jauregian izango da mahai ingurua, hilaren 4an, seguru asko.



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde

2.2: Eskola jangelak kudeatzen dituzten enpresen kontrako salaketa

2016ko otsailaren 4an, Lehiaren Euskal Agintaritzak 18 milioi euroko isun historikoa ezarri zien 2003 eta 2015 bitartean urtez urte euskal ikastetxe publikoetako otorduak zerbitzatzeko Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren kontratuak lortu zituzten zazpi enpresari. Hain zuzen ere, salaketa hau egin die Agintaritzak, isuna jartzeko: lehia askearen kontrako jarduna eta merkatua beren artean banatzea, urte horietan guztietan, zeinak ekarri baitie gain kostua kutxa publikoari nahiz familiei. Enpresa hauei jarri diete isuna: Auzolan gipuzkoar taldeko hiru (Auzolagun, Cocina Central Goñi eta Magui), Eurest Colectividades, Gastronomía Vasca, Gastronomía Cantábrica eta Tamar las Arenas. Auzolanek jaso du zigor handiena: 6 milioi eurokoa, hain zuzen, hura izan delakoan 2003az geroztik esleitu diren 800 milioi euroek mesedetuena.

Espedientea ebazteko, urte eta erdiko ikerketa egin du Lehiaren Euskal Agintaritzak, Gipuzkoako Aibak catering enpresak ezarritako salaketa batetik abiatuta. Enpresa hura Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako jangeletarako lehiaketan sartzen saiatu zen, baina ezin izan zuen. Salaketaren ondorengo ikerketan, Lehiaren Euskal Agintaritzak frogatuztat jo ditu «eskola jangelen zerbitzua emateko merkatuaren banaketa adostu bat zegoela erakusten duten elementuak». 2003 eta 2011 bitartean eta 2013 eta 2015 bitartean, isuna ezarri dieten zazpi enpresa horiek soilik betetzen zituzten Eusko Jaurlaritzaren kontratua bereganatzeko baldintzak, Hezkuntza Sailak kontratatutako arabar laborategi baten arabera, eta haiek zuten lote bererako eskaintzarik onena, urtez urte, hainbeste, non gobernuak baimentzen zuen gehieneko prezioa eskaintzen baitzuten. Jarduera horrek merkatu askeari erasotzen dio Lehiaren Agintaritzaren arabera, eta gain kostu nabarmena eragin dio kutxa publikoari.

Auzi hau dela eta, berriro jarri da zalantzan ikastetxeetako jangelen kudeaketarako gaur egungo eredia; oraingo honetan, ordea, familiek betidanik izan duten aldarrikapenarekin bat egin du klase politikoaren parte batek. Hain zuzen ere, 2016ko otsailaren 25ean, Eusko Legebiltzarrak akordio bat onartu zuen, PNV, PSE eta EH Bilduren artean sinatua, honako hiru proposamen hauekin:

1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jakinarazi diezaiola fiskaltzari “eskola-jantokiak” Lehiaren Euskal Agintaritzaren 6/2013 espedientearen ebazpena. Helburua da baloratu dezala ardura penalak ondorioztatu daiteken.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio azter dezala ea ondare-kalterik eragiten ote den eta, bere kasuan, zerbitzu juridikoek has ditzatela behar beste ekimen legal, diru-kutxa publikoari sortutako kalteak ordaintzeko.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio intentsifikatu ditzala lanak inplikaturako eragileekin. Helburua da indarrean dagoen kontratuen zehar aztertu eta erabakitzea eman beharreko pausoak, horrela, bere kasuan, ikastetxe publiko bakoitzak bere jantokia kudeatzeko modua aukeratu ahal dezan.

Gai honi dagokionez, EHIGE Konfederazioak jendaurreko agerraldi bat egin zuen Bilbon, martxoaren 13an; prentsaurreko hartan, egoera hau salatzeaz gainera, berriro aldarrikatu zuen eskola jangela osasungarri, hurbileko eta bidezkoagoak izateko premia, “GURE PLATERA GURE AUKERA” proiektuaren barruan. Esteka honetan irakur eta deskarga daiteke prentsaurreko hartan argitaratutako adierazpena:

<http://www.baikara.eus/wp-content/uploads/2015/03/Prensa-dossier-escola-jantokiak-2015-3-13.pdf>

Azkenik, aipatzekoa da Hezkuntza Sailak, Eusko Legebiltzarrak hala eskatuta, lau ikastetxe publikotan eskola jangelaren autogestioan oinarrituriko esperientzia pilotua ezartzea onartu zuela orain dela urtebete baino gehiago. Orain pare bat aste jarri zuten abian lehen esperientzia, Markina-Xemeingo Bekobenta ikastetxe publikoan.

2.3: LOMCE aplikatuz, ikastetxe itunduei hezkuntza itunak berritzea

Datozen asteetan ikusiko dugu, beste behin ere, Eusko Jaurlaritzak zenbateraino duen LOMCeren kontrako jarrera. Izan ere, LOMCeren neurrietako bat da ikastetxe pribatuak finantzatzen dituzten hezkuntza itunen indarraldia lau urtetik sei urtera zabaltzea derrigorrezko etapan. Kontua da 2015-2016 ikasturte honetan amaitzen dela hezkuntza itunen indarraldia, eta Eusko Jaurlaritzak itun horiek berritu beharko dituela. Eta susmoa dugu honetan ere LOMCE aplikatuko duela Eusko Jaurlaritzak, beste gai batzuekin egin duen bezala, eta lau urtetik seira luzatuko dituela hezkuntza itunak.

Gai honi dagokionez, gogorarazi nahi dugu, halaber, hezkuntza itunen eredia eta edukiak berraztertzea eta itun horiek euskal hezkuntza sistemaren gaur egungo egoeraren arabera egokitzea dela EHIGERen aldarrikapenetako bat. Izan ere, gaur egungo itunen eredia 1985ean onartu zen, eta, 30 urte igaro direlarik, ordukoaz oso bestelako egoera batean dago gaur egun hezkuntza.



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde



3.- EUSKAL ESKOLA PUBLIKOEN JAIK

2016ko euskal eskola publikoaren jaiak egun eta toki hauetan egingo dira:

- **Euskal Eskola Publikoaren 25. Jaia:** ekainaren 5ean izango da, Hendaian. "EMAZU ESKUA" izango da jaiaren lema, eta hauxe, irudia:



"Emazu eskua" da aurtengo jaiaren lema.

Lema horren bidez, adierazi nahi dugu zein garrantzizkoa den elkarri eskua ematea eta elkarri euskara ematea, gure hizkuntzaren etorkizunerako. Horregatik, ekainaren 5ean Hendaian elkartzen diren ikasleen, irakasleen eta gurasoen arteko komunikazio hizkuntza euskara izan dadin nahi dugu.

"Emazu eskua" izena du, halaber, mugaz bi aldeetako ikastetxe publikoetako ikasleak harremanetan jartzeko xedez sorturiko proiektuak.

Euskal Eskola Publikoaren Jaia Hendaian eginez, euskararen irakaskuntzari bultzada eman nahi zaio Iparraldean, hain zuen ere, sare publikoan. Izan ere, Iparraldeko familien %70ek ikastetxe publikoetan matrikulatzen ditu bere seme-alabak, horien herenak, ikastetxe elebidunetan. Era berean, urtero bezala, aldarrikatu nahi dugu eskola publikoak behar duela izan hezkuntza sistemaren ardatza.

- **Eskola Txikien Festa:** ekainaren 12an izango da, IKAZTEGIETA. ESKOLA TXIKIAK BIZIRIK lema izango du, ohi bezala.



4.- Intereseko beste gai batzuk

4.1 Eskola egutegiak.

Dagoeneko eman du argitara Hezkuntza Sailburuordetzak 2015-2016 ikasturterako eskola egutegia lantzeko garaian kontuan hartu beharreko arauen ebazpena. Ez dago aldaketarik aurreko ikasturtean emandako arauetaz. Egutegiak OOG-Eskola Kontseiluan onartu behar dira, eta Hezkuntza Sailera igorri, ekainaren 1a baino lehen.

Gure webgunetik deskarga daiteke ebazpenaren testua, honako esteka honetan:

http://www.baikara.eus/wp-content/uploads/2016/04/resolucion_calendario_secundaria_2016_2017_c.pdf

4.2. IGEen erantzukizun zibileko aseguru.

Federazioak IGEen erantzukizun zibileko aseguruaren aseguru etxea aldatzea erabaki du. Otsailaren 13tik aurrera, FIATC da konpainia berria, eta BABES-EHNE aseguru artekaritzarekin kudeatu da aseguru.

Aurreko aseguruaren oso antzeko estaldurak ditu aseguru berriak, baina hobekuntza lortu da kasu batzuetan. IGE bakoitzari estalduren laburpenaren agiri pertsonalizatu bat bidaliko zaio. Agiri hori izango da aseguruaren egiaztagiria (izan ere, gero eta erakunde publiko gehiagok eskatzen dute aseguru izatea jarduerak egiteko baimena emateko).